


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**ERRONDA 4**

Egilea eta data: Gurruchaga; 1911

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituen, gehi hiru jasodura: lehena, 1913koa, fatxada planoan dago eta beste biak, 1926koak, atzeraemanak daude (bigarrena 1913ko estalkipearen berritze gisa, eta gaur egun itxiturak ditu erantsita). Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokiak dituena atariko ardatzean eta ezkerreko ertzean. Behe oinako baoak 1934an handitu ziren. Jatorriz proiektu komuna Erronda 6rekin eta Kale Berria 8rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.

* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.